



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-05-28

VIII. URTEA 2.012. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Zerkasian aurkeztu zuten 'Illargi Coupage' ekimena. A. IMAZ

SUKALDARITZA ETA ARDOA BAT EGINDA 'ILLARGI COUPAGE'N

TOLOSA Ekimen berezi honen helburua bi elementuak «aisialdia, plazerra eta ikaskuntzarekin» uztartzea da; ekainaren 7an hasiko da 3

«Herritarrek negozio ideia berrietan pentsa dezaten animatzeko» ekimena

TOLOSA Tolosaldea Garatzenek abiarazi du; negozio ideia bideragarriak aurkezteagatik 100 euro emango dituzte eta 500 horiek martxan jartzeko 2



Gurea zineman izan zen sari banaketa. E. MAIZ

Banatu dituzte Bertso eta Ipuin Lehiaketako sariak

VILLABONA Bertsotan iragarri zituzten eskolarteko lehiaketaren irabazleak 5

Segundo Montes-Aiztondo Senidetze Eguna, bihar

ADUNA Egun osoko egitaraua prestatu dute; iaz egin zuten lehen aldiz Zizurkilen 4

TITULAZIO OFIZIALAK

ceinpro

ERDI ETA GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK
DISEINU GRAFIKOAN

Nazioarteko Lehiaketak
Praktikak atzerrian

INFORMAZIOA 943 310 873

BUDGINTZA, KARTELGINTZA, PUBLIZTATEA
ARGAZKIGINTZA, BERRIKUPEN DIGITALA, SERBIZIOA
WEB DISEINUA, MULTIMEDIA, MARKETAGINTZA

Tolosaldea Garatzenek ideiak sarituko ditu

Ekonomia » 100 euro emango dituzte negozio idea bideragarriak aurkezteagatik, eta 500 horiek martxan jartzeko.

INIGO TERRADILLOS

Tolosaldea Garatzenek ekimen berria sortu du «eskualdean ekintzailetasuna sustatzeko eta herritarrek negozio ideia berrietan pentsa dezaten animatzeko». *Hau da zure aukera* lelopean eskualdean erroldatutako langabetuekizan ditzaizuten ideia ezberdinak praktikan jartzeko erraztasunak eskainiko dituzte. Hain zuzen ere, ideia bideragarriak aurkezteagatik diru laguntza emango dute, eta baita ondoren ideia horiek martxan jartzeagatik ere.

Kanpaina honetan negozio ideiak aurkeztuz parte hartu ahal izateko, Tolosaldean erroldatuta eta Lanbiden edota Inem-en izena

emanda egotea beharrezkoa izango da. Negozio ideien bideragarritasun plana Tolosaldea Garatzenek zarririk gidoiaren arabera egin behar da, eta ondoren, ahoz epaimahaiaren aurrean, ideia bideragarria dela defendatzeagatik 100 euroko diru laguntza emango du eskualdeko garapen agentziak. Gainera, bideragarria den ideia hori negozio berri bat sortuz eskualdean martxan jartzeko 500 euroko laguntza emango du. Enpresa abian jartzeko doako aholkularitza eta tutoretza ere eskainiko dute.

Ekainaren 1etik irailaren 30era arteko epea dago negozio ideien bideragarritasun plana aurkezteko. Pertsona bakoitzeko ideia bakarra onartuko dute, eta bideragarria den negozio ideiatik sortutako negozioa martxan jarri behar da 2010eko abenduaren 31a baino lehen.

Negozio ideien bideragarritasun plana egiteko Tolosaldea Ga-



Triangulon egin zuten atzo Ekintzaileen Eguna. Pasa den urteko ekintzaileak han izan ziren. I.T.

» DATUAK

- **Ekimena.** Negozio Ideia Berriak Sortzen Laguntzeko kanpaina.
- **Nori zuzendua.** Tolosaldean erroldatuta daudenak eta Lanbiden edota Inem-en izena emanda.
- **Laguntzak.** Ideia bideragarria aurkezteagatik 100 euro, eta proiektua martxan jartzeko 500.

ratzeneko web orriko (www.tolosaldeagaratzen.net) *autoenplegua* sailean eskuratu ahal da gidoia. Kanpainaren oinarriak web orrian ere izango dira ikusgai, *berriak* sailean, eta informazio gehiagorako

943 65 45 01 zenbakira deitu ahal da, ekin@tolosaldea.net helbidera idatzi edota Tolosaldea Garatzenaren bulegorara.

Ekintzaileak eskertuz

Atzo ospatu zen Tolosaldeko IV. Ekintzaileen Egunean eman zuten Tolosaldean Negozio Ideia Berriak Sortzen Laguntzeko Susta-pen kanpainaren berri. Ekintzaileen Egunak, halaber, izan zituen osagai gehiago. Ekintzailetzari buruzko bi tailer izan ziren, eta pasa den urtean ekintzaile izan zirenei, hau da, autoenpleguaren bidetik jo zuten, aipamen berezia egin zi-

tzaiei. Tolosaldea Garatzenetik azaldu zuten, «egoera ekonomikoak kontuan izanda ideia gutxi aurkeztu ziren iaz». Hori dela eta, «jendea ideia berriak izatera animatzeko», jarri dute abian ekimen berria.

Jokin Bildarratzek «autoenpleguaren garrantzia» nabarmendu zuen, izan ere, «dagoeneko ia 400 enpresa dira bide honetatik sortu direnak, ia 800 lagunentzat lana eman dutelarik». Hala, bide hori landu beharra dagoela esan zuen, eta eskerrak eman zizkien pasa den urtean pauso hori eman zuten.

Alos Quartet laukotearen kontzertua, gaur Topic-en

Musika » Musikaria astearren barruan, 20:30ean hasiko da; 10 euro ordaindu behar da sarrerarengatik.

ERREDAKZIOA

Musika Eskolaren Musikaria astearren barruan, Alos Quartet taldearen *10 tanta* emanaldia izango da gaur, Topic-en, 20:30etik aurrera. Sarrera bakoitzeko 10 euro ordaindu behar da, eta Topic-eko leihatilan, Servikutxa, Telekutxa edota www.kutxa.net-en eskuratu ahal da.

Taldea sortu zenetik 10 urte

pasa zirela, hari laukoteak *10 tanta* izeneko diskoa kaleratu zuen pasa den urtean. Bertan, taldeak ibilbide bat proposatzen du 10 lan berrietan zehar.

«10 tanta 10 urte, 10 doinu berri mimo handiz sortu eta aukeratuak. Gure bideko beste geltokibat, eta zu ere bide horretako konplize egin nahi zaitugu. Dastatu tanta bakoitzaren zaporea eta utzi barruraino busti zaitzan», azaltzen dute. Antzinako musikatik hasi eta gaur egungo konposatzaile hainbaten obretaraino zabaltzen da Xabier Zeberio, Francisco Herre-ro, Lorena Nuñez eta Pello Ramirezek osaturiko laukotearen errepertorioa.

Omenaldia bi mendigoizaleei

Mendia » Eurne Pasaban eta Asier Izagirre bihar eguerdian egingo diete harrera Plaza Zaharrean, ekitaldi ugariarekin.

INIGO TERRADILLOS

Harrera berezia egingo die bihar Tolosako Udalak Eurne Pasaban eta Asier Izagirre mendigoizale tolosarrei. Plaza Zaharrean hasiko da ekitaldia 12:00etan, eta bertsoak, kantuak, musika eta jai giroa izango dira nagusi.

Bi protagonistak udaletxeko balkoira igoko dituzte Jokin Bildarratzek alkatearekin batera, herritarrek agurtu eta esan nahi dituztenak esateko. Balkoiean, hainbat sorpresa izango direla ere iragarri dute. Ekitaldian zehar, besteak beste, TAKeko arraunlariek, Tolosa Kantariko kideek, eta Samaniego ikastetxeko haur bertsolariek hartuko dute parte. 12:45ak aldera, ekitaldiari amaiera emateko txistorra banatuko dute plazan.



Asier Izagirre eta Eurne Pasaban mendizale tolosarrak. I.T.

Asteburu honetan Tolosako Zerkausian Bisiguaren Festa egingo dutela aintzat hartuta, bi mendigoizaleak bertan bazkaltzera gonbidatu dituzte ondoren.

Bestalde, Tolosako ekitaldiekin jarraituz, ekainaren 19an izendatuko dute ofizialki Eurne Pasaban Tolosako Alaba Kuttun, eta Udala ekitaldi «berezi eta hunkigarria» ari da prestatzen egun horretarako.

Hainbat omenaldi eta izendatzen jasoko ditu Pasabanean dato-

zen egunetan. Gaur Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo dio harre-ra, Markel Olano Ahalduen Nagusiaren eta Iñaki Galdos kiroletako diputatuaren parte-hartzearekin. Bestalde, Kirol Merituaren urrezko domina emango dio Espainiako Gobernuak, eta Oscar Renedo (PSE-EE) Tolosako Udaleko kirol zinegotziak adierazi du hasia dela Espainiako Kiroletako Kontseilu Gorenarekin kudeaketak egiten tolosarrak Asturiasko Printzea Sarria jaso dezan.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607-25 42 40

Mark: amex_279@euskalherria.org Euskal Herriko produktua, ekoizlearengandik zure eskura

Ohitura hartu dut eguneroko erosketak euskal Herriko Plazan egiteko: garbantzuak, olioak, hegala, zepina, sagardoak, ardoak, gazta... Behin erosi eta bolada baterako badakurkat.

26,75 € Erref.: 380001 Delicass, ahateki sorta 4 produktu

37,45 € Erref.: 200005 Alfara, olioak 25 dl-ko 12 botila

Beste produktu askoren artean, hauek topatuko dituzu Euskal Herriko Plazan.

www.euskalherriko plaza.com plaza@euskalherriko plaza.com

ETXERRA LANBARA EGONBARA

» erosi gurean

'Illargi Coupage'-n erreserba egiteko aukera zabalik

Tolosa » Ekainaren 7tik 13ra hainbat ekimen burutuk dira Zerkausian; dastatze desberdinak nagusituko dira.

ASIER IMAZ

Tolosan ekainaren 7tik 13ra esperientzia gastronomiko berri bat izango da: *Illargi Coupage*. Illargi Delicatessen-ek bideratua, Tolosaldea Tour, Tolosaldea Garatzen, Tolosa Gourmet eta Tolosako Udalaren laguntza izan du.

«Etekin ekonomikorik bilatzen ez duen» ekimen berri honen helburua sukaldaritzaren eta ardoaren inguruan aisialdia, plazerra eta ikaskuntza uztartzea da. Zerkausiak hartuko du ekimen berri hau.

Hiru solairu

Zerkausiko hiru solairuak hartuko ditu astebeteko *Illargi Coupage* ekimenak, eta solairu eta zonalde bakoitzak helburu edo egiteko desberdina izango du.

Bazkari eta afariak behoko pi-



'Illargi Coupage' ekimena atzo aurkeztu zuten Zerkausian. A. IMAZ

suan zerbitzatuak dituzte, eta hor bertan erakusketen zonaldea ere jarriko dute; erdikoan, kristalezko borobilean, ardo-dastatzeak eta hitzaldiak egingo dituzte, eta goiko pisuan ardoak eta pintxoak dastatu eta kafea eta kopak hartu ahaliko dira.

Bazkari edo afarietarako izena eman beharko da Tolosaldea Tour bulegoan, 943 69 74 13 zenbakian, www.tolosaldea.net webgunean edota tour@tolosaldea.net helbidean. Gainerako ekitaldietan ez da izena eman beharko, baina txartelen bidez ordaindu beharko dira.

» EGITARAUA

Ekainak 7, astelehena

■ **18:00etan.** Errioxako Horizonte upategiko arduradunak upelen inguruan hitz egingo du. Ondoren ardo-dastatzea. 10 euro.

■ **19:30ean.** Luis Cañas upategiko ardo-dastatzea. Oscar Cardenasen hitzaldia. 10 euro.

Ekainak 8, asteartea

■ **18:00etan.** Angel Loma eta Jose Luis Hernaezen hitzaldia, etnologiaren inguruan.

■ **19:30ean.** Pierola upategiko ardo-dastatzea. Esnekien inguruan Mikel Lasaren hitzaldia. Eceiza gozetegiko kide baten hitzaldia. 10 euro.

■ **20:00etan.** Iñaki Arratibel medikuak elikagaien inguruan hitz egingo du.

Ekainak 9, asteazkena

■ **19:00etan.** Ardo-dastatze lehiaketa, Dani Corman eta Eduardo Mansoren gidaritzapean.

Ekainak 10, osteguna

■ **19:00etan.** Kabiarraren inguruko hitzaldia eta dastatzea, Solbes Gourmeten eskutik.

■ **19:30ean.** Ostra dastatzea.

■ **20:00etan.** Kabaren inguruko solasaldia, Agusti Torello Mata upategiaren eskutik.

■ **21:00etan.** Afari berezia. 45 euro.

Ekainak 11, ostirala

■ **21:00etan.** Afari turkiarra, Fronton Jatetxeko Roberto Ruizen eskutik.

■ **19:00etatik 22:30era.** Pintxo pasarella eta upategi desberdinen erakusketa.

■ **18:00etatik itxi arte.** Terrazan Chill-Out Illy kafe italiarrarekin, li-koreak...

Ekainak 12, larunbata

■ **14:00etan.** Bazkaria.

■ **11:00etatik 14:00etara eta**

19:00etatik 22:30era. Pintxo pasarella eta upategi desberdinen erakusketa.

■ **18:00etatik itxi arte.** Terrazan Chill-Out Illy kafe italiarrarekin, li-koreak...

■ **21:00etan.** Afaria.

Ekainak 13, igandea

■ **14:00etan.** Bazkaria.

■ **11:00etatik 15:00etara.** Pintxo pasarella eta upategi desberdinen erakusketa.

■ **17:00etatik 19:00etara.** Terrazan Chill-Out Illy kafe italiarrarekin, li-koreak...

■ **Behetako solairuan.** Erakusketa desberdinak.

Leitzan eta Ibarren mendi irteerak antolatu dituzte bihar eta etzi

ERREDAKZIOA

Ibarrako Haitzetan Rajuk eta Bai Euskal Herriarrik Nafarroa Garaira irteera antolatu dute hilaren 30erako, iganderako. Leitzako Mendibil mendi taldeak berriz Iruso inguruak ezagutzeko aukera eskainiko du bihar, hilak 29.

Leitzatik Irusora, bihar

Mendibil mendi taldeak Iruso inguruko trikuharrien itzulia antolatu du biharko, 3 ordu inguruko ibilbidea da. Leitzako plazatik 09:00etan irtengo dira autoz. Antolatzaileren esanetan alde zuretik ez da beharrezkoa izena ematea.

Ibarratik Nafarroara, etzi

Casas de Irati inguruak ezagutu nahi dituenak etzi edukiko du aukera. Ibarrako plazan 08:00etan gelditu dira mendira joateko. Irabiako urtegia, Urkulluko gandorra... ezagutuko dituzte. Bi itzuli egiteko aukera egongo da, bata laburra eta bestea luzea. Edonor joateko moduko ibilaldia antolatu dute beraz, horiazaldute behintzat ibartarrek. «Eta badakizue, beti bezala antolatzailentzat pasatak ekarri».

Leitzak bi tantoko aldeaz lortu du garaipena

A. IMAZ

Amazabal pilotalekutik jendea oso gustura irten zen herenegun. Nafarroako Herriarteko Txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatu zen bertan eta Leitzak garaipen handia lortu zuen Uharte-Iruñearen aurka.

Lau maila desberdinetako lau partida jokatu osten, bina bukatu zuten norgehiagoka. Tanteok orde txekoei eman zien garaipena, 60-58ko amaitu ostean.

Alebinak: 8-18

Ander Alduntzinek eta Jon Lezeak ez zuten bere egunik onena eduki. Uharte-Iruña taldeko Etxegia atzelari berriz bikain arituzen. Amaieran kanpotarrek 10 tantoko alde ateratu zuten.

Infantilak: 8-5

Mikel Sagastibeltza Lasartek eta Anartz Olanok nagusitasun handia erakutsi zuten. Bikote oso sendoa osatzen dute. 1-4 galtzen hasi baldin baziren ere erraz eman zioten buelta partidari. Anartz Olanok pilota airean ibili zuten.

Jubenilak: 22-13

Jaunarena anaien garaipenarekin Leitzak aurretik jarri zen lehian. Jon Jaunarenak, zaharrenak, eskuetatik nahiko justu amaitu zuten.

Nagusiak: 12-22

Azken partida erabakigarria jokatu aurretik Aurrerako kideak afari merienda prestatu zuten gerturatu ziren guztientzat. Une horretan, Leitzak 2-1 irabazten zioan baina

nagusien mailan garaipena oso garesti egin zen. Lehia irabazteko 12 tanto egin behar zituzten Zubillaga-Iriartek. Azken honek, Mikel Iriartek, maila izugarria erakutsi

zuen eta honi esker leitzarrek hamarna jartzea lortu zuten. Ikusleak oiuhuka eta abar, giro paregabea jarri zuten. Amaieran, helburua lortu zuten leitzarrek.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak
*José Castillo*ren eskutik

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 3. ALEA

berriarekin eskaintza berezia

Aurreko bi aleak ez badituzu esuratu, eskatu orain. Hirugarren alearekin batera jasoko dituzte.

EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Laguntzailea: FAGOR

ALBERTO GONZALEZ
9433 8433/3432
berria



Mari Anjeles Lazkano, Arantza Aburuza, Iñaki Amenabar eta Maixabel Arrieta, senidetzearen inguruko hitzarmena sinatzen. E. MAIZ

Bihar Segundo Montes-Aiztondo Senidetze Eguna ospatuko dute

Aduna » II. Senidetze Eguna izango da; senidetzearen inguruko hitzarmena sinatu zuten atzo lau udal ordezkariak.

ENERITZ MAIZ

Azken urteotan Zizurkil, Aduna, Asteasu eta Amasa-Villabona El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearekin senidetuta daude. Hori dela eta, atzo Adunako Arantza Aburuza, Asteasuko Iñaki Amenabar, Villabonako Maixabel Arrieta eta Zizurkilgo Maria Anjeles Lazkano alkateak Adunako udaltxearekin elkartu ziren.

Bertan, larunbatean Adunan ospatuko duten Senidetze Egunaren berri eman zuten eta era berean, senidetzearen inguruko hitzarmena sinatu zuten. Aiztondo bailarako lau herri hauek, Euskal Fondoaren laguntzaz, hainbat ekimen aurrera ateratzen lagundu dute.

Hasiera batean, etxebizitzak egin zitzaizkien. Ondoren presa moduko batekin etxetara ura eramatea lortu zuten eta orain ur ziki-

nak garbitzeko proiektuarekin hasi dira. Gainera, iaiztik hasita, Komunitateko zazpi haurtzaindegi eta zazpi baratza sortzeko proiektuak martxan jarri dituzte.

Iaz Senidetze Eguna, Zizurkilen ospatu zuten eta aurtengoa Adunan izango da. Urtez urte, herriak txandakatuz, elkarri laguntzeko eta egun hau antolatzeko konpromisoa adierazi dute.

II. Senidetze Eguna

Bihar, 11:00etan emango diote hasiera II. Segundo Montes-Aiztondo Senidetze Egunari. Lehenik eta behin, Aiztondoko lau udal ordezkariak, ongi-etorri instituzionala egingo diete Salvadorreko lagunei. Jarraian, Porrotx pailazoak emanaldia eskainiko du. Gainera, goizean zehar talogileak egongo dira eta baita kantu-jira ere. 13:00etan, ongi-etorri herrikoia egingo dute bertsolari eta dantzarien laguntzarekin.

14:00etan bazkaria izango da frontoian eta paella ederra izango da guztiarentzat. Txartelak egunean bertan ere erosteko aukera izango da. Eta bestela, lau herrietako udal-letan edota ohiko tokietan eskura-

tu ahaliko dira. 16:30etik aurrera berriz, haur eta helduentzako jolasak izango dira edonork parte hartu nahi izanez gero.

Lau udal ordezkariak, herritar eta kanpotar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte biharko anaieratze egunean parte hartzera.

Bestalde, atzo eguerdian iritsi ziren Aiztondo bailarara Segundo Montes komunitateko hiru ordezkariak. Bata, udal ordezkaria da eta beste biak, Gazte Asoziazioak dira. Ekainaren 14a bitarte, eskual-

» II. SENIDETZE EGUNA ADUNAN

Segundo Montes-Aiztondo

- **11:00etan.** Ongi-etorri instituzionala, Aiztondoko Udalen alde, Salvadorretik etorriko diren lagunei.
- **Ondoren.** Porrotx pailazoaren emanaldia.
- **Goizean zehar.** Talogileak egongo dira eta kantu-jira.
- **13:00etan.** Ongi-etorri herrikoia, bertsolari eta trikilariek.
- **14:00etan.** Bazkaria frontoian.
- **16:30ean.** Ume eta helduentzako jolasak.

doko eta Gipuzkoako bizimoduaren berri ezagutuko dute. Nola ez, biharko II. Senidetze Egunean ere bertan izango dira. Kataluniako herri bat ere gonbidatu dute eta bertako ordezkariak ere izango dira. Euskal Fondoa ere gonbidatu etako bat da, hauen bidez proiektu asko aurrera eramaten direlako.

Udalek sinatutako hitzarmena

Hitzarmena, lehenik eta behin, herri bakoitzeko udal guztiak onartu izan da eta aipatu moduan, atzoko aurkezpena baliatu zuten udal ordezkari guztiak sinatzeko. Bertan lau puntu onartu dituzte. Batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak burutzen duen *Elkarrekin* senidetze programaren barruan, udalei ematen zaie diru-laguntzarako deialdian eskaera bakar bat aurkezteko konpromisoa hartu dute. Bestetik, lau udalek txandak jasoko dute, urtez urte, ondorioztatzen den diru-laguntza, hain zuzen ere. Hirugarrenik, gastuei dagokienez, urte jakin batean senidetzeak eragindako gastuak, urte horretan laguntza jaso duen herriak ordainduko ditu eta azkenik, senidetzea El Salvadorreko Mianguera herriarekin egingo da.

Escolen arteko senidetzeak ere badituzte. Zizurkilgo Pedro M^a Otaño herri eskola eta Henry Ortiz eskola senidetuta daude eta orain Adunako eskola ere hango Hatos II eskolarekin harremanetan dago. Udal ordezkariak garrantzitsuztat jotzen dute haurrek ere besteen berri izatea. Segundo Montes Komunitatea Ertamerikako Andean kokatua dago, Nahuacaterique mendilerroan. 700-1.000 metrotako altuera duen bailara eta mendietan sakabanatuta. 10.000 biztanle bizi dira.

Pistolaz eta labanaz mehatxu egiteagatik atxilotuta

Tolosa » Ertzaintzak, 35 urteko gizonzkoa atxilotu du. Honek, tiro bat bota zuen airera eztabaida baten ondoren.

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurilaritzako Herrizaingoa Saitetik azaldu dutenez, asteazken gaueko 23:00ak inguruan izan zen gertakaria Tolosako Pablo Gorosabel kalean. «Bikote bat, lagun talde batekin etxera bidean zihoala, etxeurrean eztabaida bat eduki zuten bizilagun batekin. Eztabaidan, bizilagun honek labana ateratu zuten eta pistola batekin mehatxu egin zuten. Tiro bat airera bota zuten, bikoteak, erasoaren aurrean alde egin zuten».

Tiroa bota eta gero erasotzailea bere etxean sartu zen. Ertzaintza bere bila joan zenean, ustezko erasotzaileak aterik ez zien ireki. Gauerdian, Ertzaintzak bere etxera sartu behar izan zuen. Ertzaintzak inguruan kalibre txikiko bala-zorro bat aurkitu zuen. Ustezko erasotzailea etxean zegoela, Ertzaintzak hainbat aldiz bera atxilotzeko ahalegina egin zuen. Atea bere borondatez irekitzen ez zenez, Brigada Mugikorrek etorri behar izan zuen.

Herrizaingoa Sailak jakinarazi duenez atxilotuak 35 urte ditu eta aurrekari polizial ugari. Ertzaintza-zeren dependentsian dago eta datozen orduetan epailearen aurrera eramango dute.


Laburrak

IV. Poltsikoko Antzerki Lehiaketako finala gaur


ADUNA » Gaur 22:30ean, IV. Poltsikoko Antzerki Lehiaketako finala jokatu da. Guztiak arteki, lau antzerki talde iritsi dira finalera: Berastegiko antzerki taldea *Txiki-teoan* lanarekin, Hortzaka *Zaparradarekin*, Le Mamelon *Fantastique Bernarditorekin* eta Edurne Agirrezabal, *Zilboresterekin*. Bi irabazle izango dira: epai mahaia eta publikoak aukeratzen dituztenak.

Deloradorako irteeran izena emateko aukera

ANOETA » Alkartasuna Biltokiak, urtero bezala irteera antolatuta du. Ekainaren 17an, osteguna, izango da eta Deloradora (Burgos) joango dira. Autobusa 08:00etan abiatuko da eta bakoitzak 12 euro ordaindu beharko du. Prezio horren barruan, gosaria, bazkaria eta bisitak daude sartuta. Joan nahi duenak izena eman beharko du.



**TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA**



Rondeste kalea 58 Tolosa
www.inmakulada.net
943073639

HEZIKETA ZIKLOAK

Lehen zikloa

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnostikoa Irudia
- Erradioterapia

Bigarren zikloa

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

ATE IREKIAK
MAIATZAK 31tik
EKAINAK 11ra



Adinekoen egoitzako langileak greba egin zuten atzokoan. A. IMAZ

Adinekoen egoitzetako eta grafikagintzako langileak greban

ASIER IMAZ

Gipuzkoako adinekoen egoitzetako hainbat langilek greba egin zuten atzokoan. «Langileok ia urte eta erdi daramagu hitzarmen kolektiborik gabe, ADEGI eta LARES patronalek eta Foru Aldundiak negoziatzeko borondaterik agertu ez dutelako».

ELA eta LAB sindikatuek deituta elkarretaratzea egin zuten atzo Tolosako udaletxearen aurrean.

«Borrokan» jarraitzeko asmo sendoa agertu zuten atzo kalera irten ziren langileek. Grebak gaur, ekainaren 3an eta 4ean jarraipena edukiko du beraz. Horretarako arrazoiak soberan dituztela ere azaldu zuten: «Azpikotrata publikoen artetik gure sektorea da lan-baldintzarik txarrenak dituen: soldata ziztrinak, egutegi txarrak, ordaindu gabeko atsedendialdiak, baja-osagarririk ez, gehienbat lanaldi partzialak eta etenak,

kalitatezko enplegu egonkorrik ez, ratio egokirik ez, eta abar». ELA eta LABen ustez egoerari aurre egiteko eta kalera ateratzeko garaia da: «Ez gara egonean geratu, enpresek eta Gipuzkoako Aldundiak dagokiguna noiz emango diguten zain. ELA eta LABek apustua egingo dute, adinekoen egoitzetako Gipuzkoako Hitzarmen berrian lan-baldintzak nabarmen hobetzearen alde».

Grafikagintzan ere greban

Atzo irten ziren grafikagintza sektoreko langileak kalera, lan negoziatzean ADEGI-ren «jarrera eta asmo atzerakoiak» salatzeko helburuarekin. LAB eta ELAK grebarekin jarraitzen dute eta elkarretaratzea egingo dute gaur 11:30ean Tolosako Triangulon.

Metalgintzako langileek ere gaur dute ELA, LAB eta CCOOek deitutako lehen greba eguna.

Azken ostiralean euskal presoek aldeko ekimenak

ERREDAKZIOA

Euskal presoek egoera salatzeko elkarretaratzeak egingo dira Tolosaldean eta Leitzaldean, hilabete-ko azken ostirala izaki.

Amnistiaren Aldeko Mugimendua azaldu duenez uztarrilean hasitako borrokaldiarekin jarraitzen dute euskal presoek. Jaen adibidez, zazpi hilabete baino gehiago daramatzate aurrez aurreko bisitarik gabe, espetxezainen aldetik senideek jasaten dituzte miaketak umiliagarriak direla eta. Azken 17 egunetan gose greban egon dira, komunikaziorako esku-bidearen eta oinarritzko bizi baldintza duinen alde, baina bertan behera uztea erabaki dute. Lizartzako Pello Olano bertan dago.

Ibarran, era berean, pasa den astean atxilotutako Maite Aranalde

herrikidearen atxiloteta salatzeko eta errepresioaren amaiera eskatzeko manifestazioa egingo dute 19:30ean plazatik abiatuta.

» ELKARRETARATZEAK

Gaur, hilak 28

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketak.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean manifestazioa.
- **Ikaztegieta.** 20:30etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.
- **Leaburu-Txarama.** 20:15ean Txaramako plazan.

Gatikoaetxea Familia
ZURE FAMILIA EDONOLAKOA DELA ERE

0€

euskaltel
zuretzat

FAMILIA PLANA
ZURE FAMILIAKO TELEFONOEN ARTEKO DEI GUZTIAK

MINUTURO
0 zentimoren truke

Finkoa ▶ Mugikorra / Mugikorra ▶ Mugikorra / Mugikorra ▶ Finkoa

zuntzOptikoa Deitu 1717 telefono-zenbakira
www.euskaltel.com

Guztizko ordainu onartzerako mugaketa bat dute ZuntzOptikoa/Euskaltel Hantzerakko bezeroentzat azken da Familia Plana. Tarteak guztiak kontu beran egon behar dute Euskaltel-ekin. Ezerkin ezin da 15 euro 10 minutu Finkoa eta 10 minutu Mugikorra bitarteko gutxienez aldatu. ZuntzOptikoa/Euskaltel Hantzerakko bezeroentzat bali da mugaketa hori. 2010eko maiatzaren 28an. Mugaketa 1000 da.


Langile mugimendua gertuagotik ezagutzeko aukera izan dute Leitzan

Kultura » Kultur Aroarekin jarraituz, gaur arratsaldean, haurrentzako jokoak eta Okasientes taldearen kontzertua izango dira.

ERREDAKZIOA

Leitzako Kultur Aroa pil-pilean dago, joan den igandean hasi zen eta oraindik ere ekitaldi ugari falta dira. Kirolariak hasitako lanari idazleek eman zioten jarraipena, ondoren, dokumentalek eta mendizaleek. Gaur berriz, haurrentzako jokoak, historialariak eta musikariak hartuko dute erreleboa.

Ekitaldien artean, herenegun, *Ximeneiak*, langileen mugimenduari buruzko dokumentala ikusteko aukera izan zen Aurrera elkartearen. Hau aurkeztera egilea



Aurrera elkarteak herenegun izan zen ikusgai 'Ximeneiak' dokumentala. A.I.

ren, Goizeder Urtaşunen, aita etorri zen, Jose Ramon Urtaşun.

Dokumentalak, 1970etik gaur egun arteko langile mugimenduari inguruan hitz egiten du, handik abiatu eta oraingo egoera aztertzeke. Langile mugimendua ar-

datz hartuta, Jose Ramon Urtaşunek bere garaian egindako artelan batzuetatik abiatzen da alabaren lana. Artelan hauek mugimenduari harremana zutenei oparitu zizkien artistak eta Goizederrek, pertsona hauen testigantzak bil-

tzea erabaki zuen. Honela, garai haietaz eta oraingoz mintzatzeko dira. Honez gain, aita bera ere ageri da margolan bat egiten, eta hau nola osatzen duen azaltzen. Honenbestez, margolanaren eboluzioarekin batera, langileena ere ikusten da. Hala, egileak berdinek ondorioztatzen du, orduko arazoei jarraitzen dutela egun ere, «sistema kapitalista bera baitago indarrean».

Rock doinuak gaur Peritzan

Okasientes taldea entzuteko aukera izango da gaur, Peritza tabernan 23:00etatik aurrera.

Hiru lagunek osatutako talde hau Bermeotik dator. «Rock klasikoa edo rocka» bezala definitzen dute beraien musika Okasientesek.

Kantuetan, gai nagusia erlijioa

» KULTUR AROA

Maiatzak 28, gaur

■ **17:00.** Haurrentzako joko-jostetak herriko plazan, Aldaia Argandoñaren eskutik. Ondoren txokolate jatea egingo dute.

■ **20:30.** *Iraganari begira*, *etorkizunari irabazteko* izenburuean, Euskal Memoria fundazioaren aurkezpena. Joxean Agirre idazlea izango da hizlari.

■ **23:00.** Okasientes taldearen kontzertua izango da Peritza tabernan.

da; erlijioaren kontrako kantak, drogak... Gehien bat, gizartearen kontrako letrak idazten dituzte, politikoaren kontra eta gizartearen dauden lapur guztien kontrako kantak; gezurrak esaten dituztenen kontra ere egiten dute, komunikabideen aurka, esaterako.

Lazko maiatzean aurkeztu zuten beraien lehendabiziko diskoa. Antzerki bat balitz bezala, kontzertuetara makillatuta eta mozturrotuta joaten dira, dibertigarriago giteko.

Logo lehiaketa antolatu du Kaxkabeltzak

ERREDAKZIOA

Leitzako Kaxkabeltza, merkatari, tailer eta tabernarien elkarteak logo lehiaketa antolatu du.

Parte hartu nahi dutenek ekainaren 5a bitartean Maimur eta Astiz liburu-dendetan utzi ditzakete egindako marrazkiak. Marrazkiaren gaia libre da. Irabazleak, Buruz buruko finalerako bi sarrera eramango ditu eta parte-hartzaileen artean MP4 bat zozketatuko dute.

Zuzenketa. Astearteko egunkarian Paskualtxoren omenezko bazkaria Asteasun izango zela jartzen zuten, baina Zizurkilien izango da. Barkatu eragozpenak.

Leitzaldeko gazteak, bertsolari bikainak

Bertsolaritza » Leitza eta Aresoko gaztetxoek Nafarroako Bertsopaper Lehiaketa hartu dute parte; emaitza oso onekin.

ERREDAKZIOA

Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren baitan bertso paper lehiaketa jokatu da orain gutxi, eta tartean, Aresoko eta Leitzako gaztetxo ugari izan dira saritua.

Apirilaren 3ean, Beran hasi zen lehia eta joan den larunbatean, Leitzan amaitu. Hiru taldetan banatuta, Lehen Hezkuntzako hiru garren mailatik hasi eta DBH 2.eko arte hartu dute parte. Gai-



Leitzako zineman jokatu zen larunbatean, azken finala. HITZA

nera, aipatzekoa da, hiru multzoetatik bitan, eskualdekoek irabazi zutela.

Gaztetxoenetan, hau da, LH3 eta 4. mailakoan artean, Leitzako

Erleta ikastetxeko Xabat Ilarregi izan zen garaile. Sarituen artean egon ziren ere, Erletako Oier Altzelai eta Aresoko Beñat Etzezarreta.

LH-ko 5. eta 6. mailakoan artean ere, Leitzar bat izan zen irabazle, Joanes Ilarregi, hain zuzen ere. Aipatzekoak dira ere, Erletako Beñat Altzelai eta Josu Sukuntzak nahiz Aresoko Maider Barandarainek egindako lana.

DBHko lehen bi ikasturteetako ikasleek osatzen zuten azken multzoa, eta bertan, Xalto ikastetxeko Ainhoa Zabaleta izan zen garaile. Dena den, hemen ere, sarituen artean, bi eskualdeko izan ziren, Amazabal institutuko Beñat Urkiola eta Martxel Intsausti.

Ekitaldiaren baitan, gaztetxoaren saioen artean, Oskar Estanga Gaintzako bertsolariak bertso batzuk bota zituen Leitzako zinematiko taula gainetik.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

